



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko urtarrilaren 28a

16. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga pizgarriak arautzen dituen. Osoko zuzenketak (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea hein batean aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (6. or.).

—Foru Lege proposamena, Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (6. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da berehala eraiki dezan ikastetxe publiko berria Sarrigurenen. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Abortuaren Legearen erreforma arbuatzen du eta Nafarroako Gobernuak premiatzen du aktiboki aurre egin diezaion. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da urgentziaz gara dezan berariazko programa bat, nekazaritzan eta abeltzaintzan belaunaldien arteko erreleboa errazteko. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako hezkuntza komunitatearen interesak eta beharrak babes ditzan eta LOMCE ezar ez dezan. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak eta Espainiako Gobernuak premiatzen dira abiadura handiko trenaren Iruña-Castejón tarteko obrak berehala geraraz ditzaten. Osoko Bilkurak bazter utzia (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da curriculum eta antolaketa proposamen bat aurkez dezan eztabaidatu eta bozkatzeko, atzerriko hizkuntzak Haur Hezkuntzako eta derrigorrezko irakaskuntzetako curriculumean kontuan hartzeko eta tratatzeko. Osoko Bilkurak bazter utzia (9. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

—Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak ahaleginik egin duen tributu-figura batzuk direla-eta sortu diren desadostasunak Arbitraje Batzordearen bitartez ebazteko. Galdera erretiratzea (10. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga pizgarriak arautzen dituen.**

### **OSOKO ZUZENKETAK**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga pizgarriak arautzen dituen Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proiektu hori 2013ko azaroaren 8ko 128. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **1. ZUZENKETA**

#### **BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI**

#### **PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga pizgarriak arautzen dituen Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa, hura Nafarroako Gobernuari itzultzekoa.

Zioak: Mezenasgoaren foru legearen gaineko ekimena da, antza, Nafarroako Gobernuak kulturgintzaren arloan duen estrategia berriaren osagai garrantzitsuena, eta Foru Erkidegoko kulturalaren eraldaketa ekarriko du, baina beharbada hori ez da gertatuko guk positibotzat edo desiragarritzat jotzen dugun ildotik.

Mezenasgoa arautzea beharrezkoa eta baliagarria izan daiteke, baina Nafarroako Gobernuaren proposamena ezin da atera krisialdiko urte hauetan, 2008tik 2013ra, Nafarroako Gobernuak kultura garatu duen murrizketa politikatik; kulturarako aurrekontuak % 65 inguru jaitsi dira, eta jaitsiera agertzen da edozein dela ere erreferentzia (betetako aurrekontua, BPG, per capita). Zentzu honetan, badirudi mezenasgoa ulertzen dela ahalgin publikoa ordeztzeko mekanismo bat balitz bezala, eta ez jarduera kulturalak pizteko meka-

nismo bezala. Guretzat mezenasgoa osagarri bat da, gizarte zibilak finantziario publikoari egiten dion ekarpen osagarri bat. Erakundeek, arlo publikotik, kultura eskubide gisa bermatu behar dute, eta baliabide gisa sustatu, eta ez diete amore eman behar pribatizatzeko estratergiei, atzerakoiak eta izaera demokratiko urrikoak direlako; eta estratergia horien aitzindaria suertatzen da oker ulertutako mezenasgo bat.

Beraz, funtsezko eragozpen-oharrak daude foru lege proposamenean egiten den mezenasgo planteamenduaren aurka. Planteamendua, gure ustez, ezin da banandu azken urteotan Nafarroako Gobernuak garatzen ari den politika kulturaletik, eta politika horrek parte hartze publikoaren desagerpena edo abstentzioa ekarri du gizarte aurreratu baten ongizatearentzat eta osasunarentzat oso sentibera den arlo batera.

Beste alde batetik, mezenasgoari buruzko legeak sortzeko, alde aurretik Nafarroako kulturaren egoerari buruzko "urgentziazko diagnostiko" bat behar dugu, izaera kritikoa eta independentea duena, datu ekonomikoen kontrastean eta sektorearen zuzeneko balorazioetan oinarritua.

Lege proposamenak kultur mezenasgoari buruz ematen duen definizioa bera, alegia, "sektore pribatuaren partaidetza Nafarroako Gobernuaren Kultura Departamentuaren aldetik interes sozialaren deklarazioa jaso duten proiektu edo jardueretan", murriztailea da, pribatizatailea, ekintza publikoaren desagerpena dakarren neurrian, eta, aldi berean, paradoxa ematen badu ere, interbenzionista da, gogo argia erakusten duelako aldeko tratamendua izanen duten proiektuak administrazioak zedarrizteko eta hautatzeko. Eta hala erakusten du arloko eskumena duen departamentuari ematen zaion zuzentzearen erakutsunak. Ildo horretan, "kontseilariaren ahalmena, interes sozialaren deklarazioaren publikitate eta prozedurak arautuko dituzten arauak ematekoa" arbitrariotasunera,

kontrolera eta pribilegiara bideratutako maniobra sotil bat bilaka daiteke.

Halaber, Kultura Departamentuak sustatzen dituen jarduerak berez "interes sozialekoak" direla ulertzea, kultura soil-soilik ikuspegi burokratikoetik eta patrimonialistatik ikustea da. Ikuspuntu hori bixia eginen zaie kultur ekoizleei, beraien proiektuak, horiek bai, justifikatu behar dituztelako.

Legeak agertzen duen asmoa, artearen kategoriak zedarriztekoa, kultura XIX. mendeko moduan ikustea da, ulertu gabe kultura garaikideak duen plastikotasuna, inoiz mugaezina izatera iristen dena, eta berritasunez betea. Mezenasgoaren eta babes-jardueraren kontzeptuak berak modu berezitan aztertu behar dira. Bi jarduketa horiek zedarritu behar dira, eta bakoitzaren tratamendu fiskala berrikusi.

Beste alde batetik, eztabaidagarria da "finantza produktu erabilezinen" arauketa, hala zehaztapenetan nola kontzeptuan ere. Arauketa horrekin, finantza elementuak sartzen dira, kulturaren finantziazioa da, eta horren ondorioz kulturatik kanpoko aldagaiak eta eta erabakitze-irizpideak sartzen dira, errekursoen esleipena desitxuratu ahal dutenak.

Beste alde batetik, "interes sozialaren" irizpide lausoaren orde, koherenteagoa litzateke "erabilgarritasun publikoaren" irizpideak proposatzea, honako kontzeptu hauek bilduko dituztenak: kultura ondasun publiko eta eskubide unibertsal gisa, giza eskubideen defentsa gisa, kultura eta hizkuntza aniztasuna, balio demokratikoak eta herritarren parte hartzea, sormen eta adierazpen askatasuna, ezagupenerako sarbide unibertsala, hezkuntza eta prestakuntza, ondare materialaren eta ez-materialaren babesa, garapen ekonomikoa kulturatik abiatuta, Unescoren deklarazioak betetzea, eta abar.

Azkenik, Nafarroako politika kulturala pizgarri fiskaletan oinarritzea miopiazko ikuspegia da, eskura dauden datuekin eta herrialde askotan berriki izan den eboluzioarekin bat ez datorrena. Ez dago zuzeneko loturarik kulturako parte-hartze pribatuaren eta pizgarri fiskalen artean, agian portaera altruistak diruzalatasun zio hutsak ez, baizik eta bestelakoak dituelako. Horri gehitu behar diogu zerga-arinketek eta kenkariak funts publikoari ekartzen dioten kostua, hau da, gastu fiskala (biltzen ez diren diru-sarrerak, beste era batean mozkin fiskalak deituak), eta ahalegin publikoaren zati hori begiraleta politikoaren eskuetatik kanpo geldituko litzateke, nahiz eta lege proiektuari darion interbentzionismoak gogor baldintzatzen duen ahalegin horren xedea. Beraz, baliabide publikoe-

kin politika kulturala baldintzatzeko modu bat da; baina baliabideen erantzule izan gabe.

Laburbilduz, gure ustez lege proiektuak ez die erantzuten, ez kontzeptuan, ez sorburu dituen printzipioetan, ez eta artikuluetan ere, Nafarroan kulturak dituen beharrei eta lehentasunei.

Azaldutako guztiagatik, behean sinatzen dugun taldeok uste dugu kultur mezenasgoaren foru legearen proiektua osorik berrikusi behar dela, osoko zuzenketa aurkezten dugu, eta Nafarroako Parlamentua premiatzen dugu aipatu lege proiektua Nafarroako Gobernuari itzultzea.

## 2. ZUZENKETA

### IZQUIERDA-EZKERRA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga pizgarriak arautzen dituen Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa, hura Nafarroako Gobernuari itzultzekoa.

Zioak: Pertsona guztiek dute kulturarako esku-bidea, eta botere publikoen betebeharra da kulturarako, zientziarako eta ikerketarako sarbidea sustatu eta bermatzea.

Nafarroako Gobernuaren kultur ekintzarako aurrekontua azken urteetan berez ez da nahikoa izan, eta horretaz gainera, krisi ekonomikoko egoera honetan kultur ekintzarako aurrekontua izan da Nafarroako Gobernuaren murrizketa handienak pairatu dituenak. Horrek berarekin ekarri du kultur sektore askoren egoera dramatiko izatea eta lanpostuen suntsiketa handia gertatzea. Nabarmen-tzekoa da ezen, Nafarroako Gobernuari eusten dion talde politikoaren hauteskunde-konpromisoa izan bazen ere legegintzaldian zehar gutxienez ere aurrekontuaren % 1,5 kultur ekintzara bideratzea, gaur egun erabilera horrek nekez gainditzen duela Nafarroako Gobernuaren guztizko aurrekontuaren % 0,7.

Aurrekontu publikoaren murrizketei gehitu behar zaie PPren Gobernuak kulturarako BEZa % 21era igo duela, eta horrek kulturaren sektoreari egiazko eztenkada eman diola, kultur kontsumoa asko jaitsarazi baitu.

Testuinguru honetan, uste dugu Nafarroako Gobernuak kultur mezenasgoari buruzko lege hau bultzatu nahi duela, ez kultura sustatzeko politika publikoaren osagarri gisa, baizik eta gobernu horren murrizketek eta kultur politika negargarriak eragindako triskantzaren parte txiki bat konpontzeko adabaki gisa.

Pentsatu beharra dago krisiaren testuinguru honetan, non enpresek babesaren arloan egiten duten politikak ere behera egin baitu, oso zaila dela honelako lege batek harrigarri izateko moduan handi ditzala kultur jarduera babesteko eta haren mezenasgorako ekarpen pribatuak.

Foru lege proiektuari berari dagokionez, gure ustez alderdi zinez negatibo batzuk badauzka. Honakoak azpimarratu nahi ditugu, besteak beste:

– Baztertzaila da, zeren eta kultur jarduera orotarako zerga-arinketak ezarri beharrean, bitarteko arbitrarioak ezartzen baititu kultur jarduera batek zerga-arinketa izan dezan eta beste batek, berriz, ez. Gure ustez, kultur jarduera orok zerga-arinketa bera eduki behar du.

– Ez du jasotzen kultur kontsumoa piztea sektorea bultzatzeko modu gisa.

– Erljio-konfesioengatiko zerga-arinketak era baztertzailan ezartzen ditu.

– Halaber, ez gaude ados kulturarekin zerikusia duten "ezin xedatuzko produktu finantzarioak" onuradun gertatu ahal izatearekin.

Gure ustez, beste foru lege proiektu bat behar ko litzateke, besteak beste honako alderdiak jasoko litzukeena:

– Kulturaren gutxieneko finantzaketa publikorako konpromiso bat, mezenasgoaren politikak ez dezan ekar politika publikoen gutxitzerik.

– Zerga-arinketak areagotzea eta kultur kontsumoa kenkari gisa jasotzea zenbait inguruabarretan.

– Kultur jarduera guztiak onura har dezala, administrazio publikoak esku hartu gabe.

– Arestian aipatutako elementu baztertzailak deuseztatzea.

– Kultur jardueretarako mikro-dohaintzak indartzea.

Azaldutako guztiagatik, uste dugu kultur mezenasgoaren foru legearen proiektua osorik berrikusi behar dela, eta honako osoko zuzenketa aurkeztu dugu, eta Nafarroako Parlamentua premiatzen dugu aipatutako foru lege proiektua Nafarroako Gobernuari itzul diezaion.

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea hein batean aldatzen duena.**

*OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA*

Legebiltzarrak, 2014ko urtarrilaren 23an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Proposamen hori Izquierda-Ezkerra parlamentu-

taldeak aurkeztu zuen, eta 2013ko abenduaren 20ko 150. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**Foru Lege proposamena, Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea aldatzen duena.**

*OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA*

Legebiltzarrak, 2014ko urtarrilaren 23an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Proposamen hori Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko Rober-

to Jiménez Alli jaunak aurkeztu zuen, eta 2013ko abenduaren 20ko 150. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala eraiki dezan ikastetxe publiko berria Sarrigurenen.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko urtarrilaren 23an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala eraiki dezan ikastetxe publiko berria Sarrigurenen."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala eraiki dezan Sarrigurengo eskola publiko berria, Nafarroako

Gobernuak eta Eguesibarko Udalak 1998an sinatutako hitzarmena betez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren prozedurak ezar eta bete ditzan, Sarrigurengo ikastetxe berriaren instalazioak erabilgarri egon daitezzen 2014-2015 ikasturtearen hasierarako, Sarrigurenen bermatze aldera hala eskatzen duten ikasle guztiek eta/edo hala eskatzen duten familiek ikaspostu bat izatea ikastetxe publiko batean Haur eta Lehen Hezkuntzan".

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Abortuaren Legearen erreforma arbuizatzen du eta Nafarroako Gobernua premiatzen du aktiboki aurre egin diezaion.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko urtarrilaren 23an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Abortuaren Legearen erreforma arbuizatzen du eta Nafarroako Gobernua premiatzen du aktiboki aurre egin diezaion." Horren jatorria da Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2014ko urtarrilaren 8ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak arbuizatzen du Abortuaren Legean Gallardón ministroak proposatutako erreforma, eta ez du inolako inoluziorik

onartzen Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege indardunean jasotako emakumeen eskubideetan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aktiboki aurre egin diezaion, bere esku dauden bitarteko guztiak baliatuta, libreki erabakitako amatasunaren eskubidean Abortuaren legea dela-eta Rajoyren Gobernuak planteatutako erreformak dakarren injerentzia larriari eta, horrenbestez, beharrezkoak diren ekintza guztiak abiaraz ditzan, emakumeen amatasun libre eta aduratsurako eskubidea bermatzeko".

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urgentziaz gara dezan berariazko programa bat, nekazaritzan eta abeltzaintzan belaunaldien arteko erreleboa errazteko.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko urtarrilaren 23an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urgentziaz gara dezan berariazko programa bat, nekazaritzan eta abeltzaintzan belaunaldien arteko erreleboa errazteko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuaren ustez, komenigarria eta beharrezkoa da, gizarte- nahiz ekonomia-garapenerako eta lurralde-orekarako, lehen sektorean enplegua mantentzera bideratutako politika berariazkoak egotea, bai eta enplegu horren kalitatea hobetzera bideratutakoak ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urgentziaz gara dezan

berariazko programa bat, abeltzaintzan eta nekazaritzan belaunaldi-erreleboa erraztera bideratua, bai eta lan-baldintzak erraztera ustiategi txikietan, beharrezkoak diren lan-ordezkapenak egin ahal izateko bidea emanaz, gertakariren bat, osasun-baja, oporrak eta abar gertatzen direnean.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio programa hori presta dezan nekazaritzako sindikatuen eta lehen sektoreko eragile nagusien parte-hartzearekin.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio Landa Garapenari buruzko 2014tik 2020ra bitarteko Programako funtsak erabil ditzan programa hori finantzatzeko, eta, behar izanez gero, sektorean enplegua mantentzeko, berariazko jarduera berriak sar ditzan dokumentu horretan".

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako hezkuntza komunitatearen interesak eta beharrak babes ditzan eta LOMCE ezar ez dezan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko urtarrilaren 23an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako hezkuntza komunitatearen interesak eta beharrak babes ditzan eta LOMCE ezar ez dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak LOMCE arbuia eta 2013ko irailaren 20an eztabaidaturiko mozioan onetsitakoa (8-13/MOC-00126) berresten du. Hau

da, Nafarroako Gobernua premiatzen du bide guztiak urra ditzan LOMCE Nafarroan ezar ez dadin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako hezkuntza komunitatearen interesak eta beharrak babes ditzan, gure eskumenak erabil ditzan eta, hartara, konstituziokontrakotasun helegite bat aurkez dezan lege horren aurka. Hortaz, Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du LOMCE ezar ez dezan, prozesu parte-hartzaile eta juridiko hau guztia martxan dagoen bitartean".

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera



**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen dira abiadura handiko trenaren Iruña-Castejón tarteko obrak berehala geraraz ditzaten.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Izquierda-Ezkerra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen dira abiadura handiko trenaren Iruña-Castejón tarteko obrak berehala geraraz ditzaten."

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2014ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen aur-

keztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2014ko urtarrilaren 8ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da curriculum eta antolaketa proposamen bat aurkez dezan eztabaidatu eta bozkatzeko, atzerriko hizkuntzak Haur Hezkuntzako eta derrigorrezko irakaskuntzetako curriculumean kontuan hartzeko eta tratatzeko.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Izquierda-Ezkerra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da curriculum eta antolaketa proposamen bat aurkez dezan eztabaidatu eta bozkatzeko, atzerriko hizkuntzak Haur Hezkuntzako eta derrigorrezko irakaskuntzetako curriculumean kontuan hartzeko eta tratatzeko."

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2014ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2014ko urtarrilaren 8ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak ahaleginik egin duen tributu-figura batzuk direla-eta sortu diren desadostasunak Arbitraje Batzordearen bitartez ebazteko.**

*GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko urtarrilaren 23an egindako bileran, adierazi zuen jakinaren gainean zegoela Juan Carlos Longás García jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera zen jakiteko ea Nafarroako Gobernuak ahaleginik egin duen tributu-figura batzuk direla-eta sortu diren desadosta-

sunak Arbitraje Batzordearen bitartez ebazteko, eta 2014ko urtarrilaren 8ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---



